


Garuneko beste zelula batzuk neurona bilakatzeko teknika berri bat

Garuneko beste zelula batzuk neurona funtzional bilakatzea lortu dute saguetan eta giza zelula isolatuetan, pauso bakarreko teknika berri bat erabiliz. Parkinsonaren sagu eredueta gaitzaren sintomak leheneratzea lortu dute teknika horrekin, eta iker-tzaileek uste dute gaixotasun neurodegeneratiboak tratatzeko bide berri bat izan litekeela. [Nature aldizkarian argitaratu dute ikerketa.](#)

Astrozitoek PTB izeneko proteina bat sortzen dute, eta proteina horrek eragiten du, hain zuzen ere, astrozitoak neurona ez bilakatzea. Hala, parkinsonaren sagu eredueta, gaitzak eragindako eremuko astrozitoei PTB proteina kenduta, ikusi dute neurona guztiz funtzional bilakatzen direla, murriztutako neuro-na-zirkuituak birpopulatu dituztela, eta, ondorioz, dopamina-maila eta funtzio motorrak leheneratzen



Birsorkuntza-medikuntzaren helburu nagusietako bat da asaldura neurodegeneratiboetan galtzen diren neuronak ordezkatzeta, eta neurona berriak zirkuitu neuronaletan integra daitezten lortzea. Parkinsonaren kasuan, adibidez, garuneko eremu batzuetan neurona dopaminergikoak galtzen dira. Bada, ikerketa berri honetan erakutsi dute garun-ean ugariak diren zelula batzuk, astrozitoak, neurona dopaminergiko bihurtu daitezkeela.

direla. Horrez gain, PTB proteina aldi baterako ezabatze metodo eraginkor bat ere topatu dute: proteina sortzeko informazioa daraman RNA mezularia blokeatzen duten oligonukleotidoak erabiltzea.

Hala ere, iker-tzaileek ohartarazi dute teknika hau gizakietan erabiltzeko gehiago ikertu beharra dagoela. Esaterako, teknika aplikatu zaien astrozitoen % 65 inguru ez dira neurona bilakatu, eta hori hobetu beharko litzateke. Bestetik, aztertu beharko da PTB proteinak ezabatzeak, edo horretarako erabiltako teknikak, albo-kalterik baduten. ●